



Hezkuntza Bereziko Hezitzaileak

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

Terapeuta Okupazionalak

Fisioterapeutak

Transkriptoreak

Zeinu Hizkuntzako Interpreteak

Gizarte Langileak

- Lanaldia eta oporraldia
- Ordezkoak: birbaremazioa, deien kudeaketa...
- Lekualdatze-lehiaketa
- Prestakuntza fondoak
- Gizarte fondoak
- Kontratu motak
- Erretiro partziala errelebo kontratuarekin
- Lizenziak, baimenak eta eszedentziak
- Haurdunaldia, erditzeko unea, edoskitzea...
- Gurasotasun baimenak
- Lan istripuak
- Kontaktu eta informazio baliogarria (k)
- Sektoreko aldarrikapenak



Lanaldia eta oporraldia

Lan baldintzak arautzen dituzten idatziak

Lan hitzarmena: Lan legepeko irakasle eta hezitzaileen 2003ko hitzarmen kolektiboa.

Ikasturte hasierako jarraibideak: urtero, irailean ateratzen dituzte.

2018ko Lan legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren negoziazio mahaiaren akordioa.

Non aurkitu?
www.steilas.eus
hitzarmenak atalaren barruan,
EAE lan legepekoak.

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

Lanaldia. Urtean gehienez 1.480 ordu.

Lanaldi osoa:	Lanaldi erdia:
Lanaldia: astean gehienez, 37 ordu eta 30 minutu	Lanaldia: astean gehienez, 18 ordu eta 45 minutu
Arreta zuzena: gehienez 6 ordu egunean / gehienez 30 ordu astean	Arreta zuzena: gehienez 3 ordu egunean / gehienez 15 ordu astean
Material prestaketa/koordinazioa: 2 ordu eta 30 minutu	Material prestaketa/koordinazioa: ordu 1 eta 15 minutu
Bazkaltzeko denbora: ordu 1 (12:00etatik 15:00etara)	Bazkaltzeko denbora: 30 min (12:00etatik 15:00etara)

Ordutegia: ikasle goaren sarrera-irteera ordu-tegiarekin koinziditu behar du.

Lanaldi partzialetan, lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon (12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an).

Berritzeguneetan koordinazioak: urtean lau eta lanaldiaren barruan.

Klaustroak: zuzendaritzak parte-hartzea ahalbidetuko du, baina langilearentzat borondatezkoa izango da.

Jantokiko menua: langileak jantokiko zerbitzuan lan egiten badu (jangela/patioa), menua dohainik dagokio eta jantoki zerbitzuan lan egiten ez badu, ez dagokio menurik. Doako menurako eskubidea, hezkuntza premia bereziak dituen ikasle bakoitzeko, hezkuntza laguntzako espezialista batek soilik izango du.

Bi ikastetxe ezberdinetan lan egiten bada, egutegia asteko lanaldiaren dedikazio handiena ematen duen ikastetxearena izango da (hezkuntza laguntzako espezialistentzako jarraibideak).

Eskolaz kanpoko ekintzetan ("extraescolares") parte hartzeko derrigortasunik ez dago (Lan-legepeko Hezitzaile eta Irakasleen 52. Batzorde Parekideko akta).

Hauspoa proiektua daukaten ikastetxeetako lanpostuak hartzeko derrigortasunik ez dago, baina lanpostu hori behin onartuz gero, proiektuan (curriculum finkatzeko jardueretan bakarrik) parte hartzera behartuta egongo da langilea. Aipatzekoa da, Hauspoa proiektua 17:00ak baino beranduago ezin dela amaitu (beti ere arreta zuzeneko asteko 30 orduak errespetatuz).

Garraioa egiten denean, lanaldia ikastetxean hasteko eskubidea dago. Bertatik ikasleak garraioa hartzen duen geltokirainoko desplazamenduaren denbora konputatuz, baita ondoren zentrorra ikaslearekin egindako desplazamendua ere. Jardunaren bukaeran kontrakoa ere konputatzen da. Oso garrantzitsua: ordutegian konputatzen den denbora, praktikan betetzea. Ikasle batek, garraio zerbitzuan hezitzailearen esku-hartzea jasoko du, baldin eta ikasle horri autonomia programa bat egin bazaio. Programa hori denboran mugatua izango da eta ebaluazioaren menpe egongo da.

Zerbitzuagatikoko desplazamenduak: lanaldiaren joan-etorrietan ez da derrigorrezkoa gure kotxe propioa erabiltzea. Garraio publikoaren erabilpena eskatzeko eskubidea dugu. Gainera, zerbitzuagatikoko desplazamenduak Hezkuntza Sailak ordaintzen ditu, horretarako hezkuntza web orrian, langileen atalean, lan ekonomi erregimenean sartu eta hirugarrenaren datuen alta eman beharko du langileak. Gero, hilabetero, bidai gastuen likidazioa egin beharko du.

Fisioterapeutak, Zeinu Hizkuntzako Interpretak, Terapeuta Okupazionalak, Transkriptoreak, Gizarte Langileak

Lanaldia

Urtean, gehienez, 1.462 ordu. Asteko lanaldia, irakasleen antzeko dedikazioa, hau da, astean 30 ordu. Horietatik gehienez 23 ordu arreta zuzenekoak.

Egutegia erreferentziako zentro publikoarena izango da. Erreferentziako zentrotzat joko da asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen den zentroa.

Lanaldi partzialak: lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon (*12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an*).

Zerbitzuagatiko desplazamenduak: lanaldiaren joan-etorrietan ez da derrigorrezkoa kotxe propioa erabiltzea. Garraio publikoa erabiltzeko eskubidea du langileak.

Indemnitazioa: joan-etorri guztiak ordainduko dira. Berritzegunea izango da erreferentziako zentroa indemnitazio hauek kalkulatzeko. Araban aldiz, bakoitzaren jatorrizko zentroa izango da. Lehen edo azken desplazamenduetan, ohiko helbidetik distantzia txikiagoa badago erreferentzia zentrotik baino, orduan ohiko helbidetik kontatuko dira kilometroak. 2 kilometro baino gutxiagoko desplazamenduetan ez da indemnitaziorik emango. Asteko programazioan zerbitzuak ikastetxe bakarrean ematen diren egunak badaude eta asteko, gehienez, bi egunetako desplazamenduak ordainduko dira (*2014ko urriaren 24ko Parekidean adostutako akordioa*).

Denboraren konputua: ados ez bagaude ere, azken ikasturteetan ikasturte hasierako jarraibideetan argi jartzen du lehen desplazamenduko denborak ez duela konputatzen "fisioterapiako pertsonal espezialistak ikasleei eman beharreko arretari hasiera ematen dion ikastetxean HASIKO DU LANALDIA". Azken desplazamenduari buruz, aldiz, ez du ezer jartzen, beraz konputatu behar dela ulertzen dugu, hau da, azken ikastetxetik erreferentziako zentrorara. Kasu honetan, jatorrizko zentroa egutegia jartzeko kontuan izan dena izango da, asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen den zentro publikoa.

Erreferentziako zentroa: egutegiaren eta desplazamenduen denboraren konputua kalkulatzeko, asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen duen zentro publikoak erabiliko da. Kilometroen konputua kalkulatzeko berriz, Arabaren kasuan goian aipatutako berdina da, baina beste kasuetan Berritzegunea izango da.

Oporraldia

Urte oso bakoitzeko, finko eta bakantedun langileek, 45 egun natural, abuztuan eta dagozkion uztailleko egunetan hartu beharko dituzte (etenik gabe). Abuztuan, erditzea edo istripua gertatzen baldin badira, 30 eguneko oporraldia berreskuratzeko eskubidea izango dute. Gaixotasunek eragindako abuztuko oporren galera ere, kasuz-kasu aztertuta, batzuetan berreskuratzeko aukera egongo da.

Ordezkoak: birbaremazioa, deien kudeaketa...

Birbaremazioa

Urtero, martxoa eta apirila bitartean, ordezkoen zerrendak gaurkotzen dira. Epe horretan irakasle. net-en zerbitzu-orria kontsultatu eta zure datuak zuzenak direla egiazta dezakezu, puntu kopurua barne; zure lan aukerak ere alda ditzakezu.

Zerbitzuak/Puntuaketa: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden hezkuntza bereziko langileen kolektiboetan puntu bat lan egindako hogeita hamar eguneko. Jardun partzialek jardun osoek bezala puntuatzen dute.

Baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan, 0,5 puntu hilabeteko.

Puntu berdinak edota lan eginiko egun solte kopuru berdina dituzten langileen arteko lehenetsia finkatzeko, urtero zozketa baten bidez ateratako hizki bat aplikatuz gauzatzen da. 2019-2020 ikasturteko hizkia, "L" izan da.

Deien kudeaketa

2019-2020 ikasturtetik aurrera Hezkuntza Bereziko ordezkogaiei egiten zaizkien deiak honela kudeatuko dira:

Ordezkogaiak Hezkuntza Sailari telefono zenbaki bat edo bi eman diezazkioke. Eman dizkion telefono zenbakien kopuruaren arabera, hau izango da prozedura:

- Telefono zenbaki bakar bat eman badio: bi dei egingo dira telefono zenbaki horretara.
- Bi telefono zenbaki eman badizkio: zenbaki bakoitzera dei bat egingo da.
- Ordezkogaiak erantzuten ez badu, "EZ AURKITU" ("ilocalizable") egoeran jarriko zaio eta hurrengo ordezkogaiei deitzen jarraituko da.

Ordezkogaiak dei galduak ikusi eta deia bueltatzen duenean:

- Eskaintzeko behar/lanpostu bat badago, eskaini egingo zaio eta "OKUPATUTA" ("ocupado") egoerara pasako da.
- Ez badago beharrik/lanposturik eskaintzeko, "PREST" ("disponible") jarriko zaio eta hurrengo deiaren zain geratuko da.

Deiak bueltatzeko prozesua azkartzeko, deia jaso dutenak dagokion Ordezkaritzarekin kontaktuan jarri ahal izango dira posta elektronikoko bidez:

- Araba: arabaei@euskadi.eus
- Bizkaia: bizkaiaei@euskadi.eus
- Gipuzkoa: eigipuzkoa@euskadi.eus

Posta identifikatu ahal izateko:

- Gaia: "DEIA" hitza eta deia jaso den data eta ordua jarri behar dira.
- Mezuaren testuan: izen/abizenak, NANA, telefono zenbakia eta kategoria jarri behar dira.

Zerrendetatik kanporatzea

2019-2020 ikasturtetik aurrera izangaia Hezkuntza Bereziko zerrendetatik kanporatuak izango dira irizpide hauen arabera:

- Lanaldi partzialeko behar bat onartzeari uko egin dakioko, bizilekutik 50 km baino gehiagora baldin badago. Kasu horretan, ikasturtean zehar berriro deituko zaio lanaldi partzialeko behar berriak eskaintzeko.
- Justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi oso bati uko eginez gero, hiru lurraldeetan kategoría horretako zerrenda guztietan baja emango zaio, bai lanaldi osoetan eta baita partzialetan ere.
- Justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi partzial bati uko eginez gero, hiru lurraldeetan kategoría horretako eta lanaldi partzialetako zerrenda guztietan baja emango zaio.
- Deia onartu eta lanera joan beharreko lehenengo egunean ez joateak, onartutako lanpostuaren kategoríako zerrenda guztietatik kanporatua izatea dakar; hau da, Hitzarmen Kolektiboan jartzen duen bezala, hiru lurraldeetatik eta bai lanaldi osoetatik eta bai partzialetatik ere.
- Kontratu bat indarrean duten izangaiek kontratu horri uko egiten badiote, indarrean dagoen kontratu horren kategoríako zerrenda guztietatik kanporatuak izango dira; hau da, hiru lurraldeetatik eta lanaldi guztietatik (nahiz eta lanaldi partzialeko edo osoko kontratu bati uko egin).

Uko egiteko balizko arrazoiak: 5 eguneko epea izango du dagozkion egiaztagiriak aurkezteko. Lan hitzarmenean agertzen direnez gain, honakoak daude:

- **Suspensión transitoria:** 3 urte baino gutxiagoko seme-alaben zaintzagatik eskainitako ordezkapenari uko egitea baimendua dago, zerrendan mantenduz eta ordezkapenari dagozkion puntuak jasoz. Ez du eraginik izango "antzinatasuna" deritzon ordainsari-osagarriari dagokionez, ezta gizarte segurantzari begira ere, ez baita benetako zerbitzurik eman.
- **Ohiko etxebizitzatik 50 km baino haratagoko lanpostu partzialei uko egin daiteke** (2014ko uztaillak 9ko parekidean sinatutako akordioa).
- **Lan istripuagatik aldi baterako ezintasuna, gaixotasun profesionala eta amatasun, adopzio eta harrera egoeran dauden langileak.** Kasu hauetan, eskaini zaien ordezkapeneko denbora zerbitzu gisa zenbatuko da, baina ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenden baremoari begira soilik. Goian agertzen den bezala, ez du eraginik izango "antzinatasuna" deritzon ordainsari-osagarriari dagokionez, ezta gizarte segurantzari begira ere, ez baita benetako zerbitzurik eman.
- **Amatasuna, adopzioa eta harrera** dela eta, esleipenetan lanpostu bati uko egin dion langile ordezkaria; amatasuna bukatu eta gero plaza horretara inkorporatu ahal izango da. Betiere, ordezkapenak amatasunak baino gehiago irauten badu.

Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta bost irakastegun igaro aurretik langile bera ordezkatzeko beharra berriro sortzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko.

Ordezko batek lanaldi osoko ordezkapena betetzen badu eta plaza horren titularrak lanera bueltatzean lanaldia murrizten badu, ordezkoak lanpostu horretan jarrai dezake titularraren murrizketa hori betetzen. Alderantziko egoeran ere, hau da, ordezko batek lanaldi murriztua betetzen badu eta lanpostu hori lanaldi osokoa izatera pasatzen bada, ordezko berari eskainiko diote, nahiz eta ez eduki puntuaziorik altuena. Aipatzekoa da, ordezkaria ez dela egongo behartuta lanaldi horren luzapena onartzera.

Ordezkoak: birbaremazioa, deien kudeaketa...

Hirurtekoak

Ohikoena, lehenengo hirurtekoa nominan automatikoki sartzea den arren, komenigarria da langilea adi egotea; horrela ez bada, Delegaritzako nominetara deitu behar da.

Langabeziko prestazioa kobratzea

Lan gabe geratzen bazara edo/eta derrigorrez jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu, parao kobra dezakezu azken 6 urteetan 360 egun kotizatu badituzu (betiere, ikasturte batetik bestera zure jarduna murriztu bada). Kontuz epeekin, kontratua amaitu ondoren 15 egunetako epea baitauekazu eskaera egiteko. Kontuan izan, lan egindako egunek, balizko oporrak sortzen dituztela, eta kontratua bukatzean, opor egun horiek igaro arte ezin dela langabeziko prestazioa eskatu. Egoera horri, "asimilada al alta" deitzen zaio.

Egoera bereziak


Lan istripua, amatasun lizentzia edota haurdunaldi arriskutsua: ikasturte hasierako esleipenetan lanpostua har dezakezu eta lizentzia bukatzean kontratua egingo dizute. Puntuak, berriz, lehenengo egunetik emango dizkizute.

Lanean ez bazaude eta ordezkapen berri bat eskaintzen badizute, uko egin diezaiokezu; eta eskaintako ordezkapen egunek, puntuak pilatzeko balioko dute, baina ez dira kontuan hartuko antzinasunerako, esaterako.

Alta hartu edo lizentzia bukatu ondoren lanerako prest zaudela jakinarazi behar zaio lurralde ordezkaritzari (10 egunetako epean). Hori egin ezean, zerrendetatik botako zaituzte.

Gaixotasun arrunta: esleipenean bakante bat hartu ahal izateko, altan egon behar zara ikasturteko lehenengo egunean.

Bajan egonda kontratua amaitzen da. Zer gertatzen da?



Lekualdatze-lehiaketa

Noiz? Maiatza aldera

Norentzat? Lan-legepeko hezitzaile finkoentzat:

- Hezkuntza laguntzako espezialistak
- Fisioterapeutak
- Terapeuta okupazionalak
- Transkriptoreak eta material egokitzailak

Zein lanpostu eskaintzen dira? Lan-legepeko aldi baterako langileek eta sententzia bidezko langile mugagabeek betetzen dituzten lanpostu hutsak (lanpostuaren zenbakiaren eta dotazioaren bidez identifikatzen direlarik).

Eskaerak:

- Epe jakin bat zehazten da eskaerak egiteko.
- Eskaera orria Irakaslegunean egongo da.
- Nahi adina plaza eskatu ahal dira.

Uko egiteak:

- Behin-behineko ebazpenaren ondoren.
- Parte hartzeko orrian egindako eskaera guztiei eragiten die.
- Domukentazioa:
 - Uko egiteko idazkia.
 - NANaren fotokopia.

Lehiaketan parte hartu eta lanpostu bat esleituz gero, langilea irailaren 1ean hasiko da lanean postu horretan.

Eskaerak betetzeko gida eta prozesua behar bezala aurrera eramateko beharrezko informazio guztia, Irakaslegunean eskuragarri egongo da.

Prestakuntza fondoa

Hezkuntza Sailak urtero 4.500€-ko fondo bat ematen du, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hobekuntza profesionalerako eta Hezkuntza Bereziarekin zerikusia duten hobekuntza ikastaroak finantzatzeko.

Horretarako, ekaina aldera, eskaera egiteko epea egoten da eta hilabete inguru irauten du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide orria (hezkuntza web orrian eta Ordezkaritzetan)
- NANA
- Ikastaroak ematen dituen entitateko egiaztagiria/ordainagiria, datu hauekin:
 - Ikaslearen izena
 - Ikastaroaren izena
 - Iraupena
 - Kostua
 - Banketxeko ordainagiria

Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dira (kopiak onartuko dira jatorrizko zigilua baldin badute).

Non aurkeztu

Hiru lurraldeetako Hezkuntza Ordezkaritzetan (postaz ere bidali ahal izango dira, hezkuntza sindikal harremanetarako zerbitzura): hezk.sind@euskadi.eus.

Gizarte fondoa

Eusko Jaurlaritzak hainbat kontzeptutarako emandako diru laguntza da. Irakasle funtzionarioek gizarte fondoa eskuragarri aspalditik badute ere, gure sektoreak 2018an sinatutako akordioaren ondorioz lortu zuen.

Aipagarria da, deialdia urtero alda daitekeela, eta beraz, dagokion urteko deialdia kontuan hartu behar dela (deialdia ekaina aldera ateratzen da). Ondoren jasotako kontzeptuak, kudeaketa prozesua, etab. 2018ko deialdiari dagozkio eta jarraibide gisa jasota daude hemen.

Laguntzen edukia

- Ikusmenerako laguntza protesikoak (kristalak berriztatzea eta lentillak).
- Entzumenarako laguntza protesikoak (audifonoak).
- Laguntza protesiko ortopedikoak (plantillak, gerrikoak...).

- Laguntza odontologikoak (zorroak edo endodontziak).
- Tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, osasun sistema publikoan barneratuta ez daudenak (ileordeak...).
- Tratamenduentzako laguntza (foniatria, psikologikoa...).
- Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduetarako laguntza.

Laguntzen zenbatekoa

- Urtero 20.000€ egongo dira banatzeko.
- Eskaera egiteko, gastu minimoa 100€-koa izango da.
- Pertsona bakoitzeko, gehienez, dirulaguntza 1.000€-koa izango da.
- Aurretik jasotakoa batuz, 5.000€-ra iritsi baldin bada langilea, hurrengo bi deialdietan ezin izango du parte hartu.
- Eskaera guztiak batuta, 20.000€ gainditzen badira, laguntzak proportzionalki banatuko dira.

Eskatzeko baldintzak

- Dagokion urteko deialdian, gutxienez 75 egun lan eginak egon beharko dira.
- Hezitzaile laboral guztiak eska dezakete.
- Langileei dagokien egoeren inguruko eskaerak soilik hartuko dira kontuan.

Eskabideak

- Eskabide orria bete.
- Dokumentazioa atxikitu.
- Hezkuntza Ordezkaritzan aurkeztu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eredu ofizialaren arabera eskabidea.
- Begi protesiak: sendagile eta/edo optikariaren egiaztagiria (patologia, dioptriak..)
- Hortz gastuak: ez da ezer gehiago eskatuko.
- Gainontzekoak eskatzeko: Hezkuntza Saileko Mediki Zerbitzuak gastua gauzatu aurretik egindako aldeko txostena (zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da; bertan tratamenduaren beharra ondorioztatuko delarik).
- Dokumentu originalak.
- Jatorrizko fakturak.
- Fakturak ordaindu izana egiaztatzeko agiria.

Kontratu motak

Finkoak

- > Oposizio bidez
- > Berritzegunez aldatzeko ⇒ Lekualdatze lehiaketa (martxoan-apirilean)
- > Ikastetxea aukeratzeko ⇒ Berritzeguneko esleipenak (ekainean)

LEP arteko kontratu mugagabeak (Bakanteak)

- > Oposizio bidez, lekualdatze lehiaketa bidez edo berriz lanera itzultzen den finko batek lanpostu hori bete arte
- > Ikastetxea aukeratzeko ⇒ Berritzeguneko esleipenak (ekainean, finkoak eta gero)
- > Lanpostua Berritzegune bati lotuta

Lan edo zerbitzu jakineko kontratuak (COS)

- > Irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, kontratua abuztuko edo iraileko esleipenetan hartuz gero
- > Irailean edo urrian sortutako ikasturte osorako lanpostuak abuztuaren 31ra arteko iraupena
- > Azarotik aurrera gauzatuz gero, ekainaren 30era arteko iraupena

Errelebo kontratua

- > Jubilazio partzialaren ondorioz sortutakoa
- > 4 urteko iraupena

Ordezkoak

- > %50eko jardunaldia
- > Hau hartzeko, langabezian egon behar da

Titularrak

- > %50eko jardunaldia

Ordezkapen arruntak

- > Telefonoz eskaintzen dira
- > Lanpostuaren titularra bueltatu arte

Erretiro partziala errelebo kontratuarekin

Lan kontratu finkoa daukaten langileek, erretiro partziala har dezakete, eta beraien jarduera murriztu, ohiko erretiroa hartzeko legezko adina bete arte. Horren ondorioz, beste norbaiti txandakako kontratu bat egiten zaio, lanaldi murriztua osatzeko asmotan; txandakako kontratu honek ere, erretiro partzialaren iraupena izango du.

Administrazioak 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean aplikatuko du erretiro partziala; betiere langilea finkoa bada eta borondatez egiten badu. Horrez gain, langileak lanaldi osoko kontratua izan behar du eta gutxienez 6 urtez lan egin izana enpresan (jardun osoan eta justu data horren aurreko urteak izanik). Urteko jardunaldi eraginkorra, %50ean murriztu ahalko du langileak.

URTEAK 2020an BETEZ GERO – BALDINTZAK

- 61 urte eta 10 hilabete	BALDIN ETA	35 urte edo gehiago	KOTIZATUTA
- 62 urte eta 8 hilabete	BALDIN ETA	33 urte	KOTIZATUTA

Kontratua. Lanaldiaren %50eko aldi baterako kontratua hitzartuko da. Bitartean Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta-egoeran jarraituko du (azken honen araudian ezarritako kotizazio baldintzak kontuan hartuta). Beraz, bateragarriak izango dira lanaldiaren %50eko ordainsaria eta Gizarte Segurantzak errelebatu pertsonalari lanaldi partzialarengatik pentsioaren kontzeptuan aitortzen dion pentsioa.

Zerbitzuak emateko modalitateak. Eskera egitean, zerbitzuak emateko modalitate bat aukeratu beharko da:

- Urteko prestazioa: ikasturte osoan zehar edo urteko aldi batean metatu ahal dira zerbitzuak. Kasu bietan, errelebistari %50eko kontratu bat egingo zaio, eta lanaldia metatuz gero, errelebistak lehenengoz emango ditu zerbitzuak.
- Urteanitzeko prestazioa: langileak erretiro partzialera sartzen den datatik, behin betiko erretirora iritsi arte dagozkion lan orduak aldi bakar batean egingo ditu. Kasu honetan egoera desberdinak sor daitezke:
 - a) Ikasturte hasieran sortutakoa: errelebistari %100eko kontratua egingo zaio eta jubilatzeaz dagoen langileak zerbitzuak ematen dituen bitartean, beste lanpostu bat beteko du.
 - b) Ikasturtean zehar sortutakoak: lehenengo ikasturtean biek lan egingo dute, bakoitzari dagokion aldiaren eta biek %50eko kontratu bat izango dute. Bigarren ikasturtean (irailaren 1etik aurrera), errelebistari %100eko kontratua egingo zaio eta jubilatzeaz dagoen langileak zerbitzuak ematen dituen bitartean, beste lanpostu bat beteko du.

Eskaerak

- Urteko prestazioa edota ikasturtean zehar sortutako urteanitzeko prestazioa eskatzeko epe muga, apirilaren 30 izango da.
- Ikasturte hasieran sortutako urteanitzeko prestazioa eskatzeko, ekainaren 15era arte (kontratua irailean gauzatuko da).
- Eskera orria hezkuntza web orrian dago eta ordezkartzan entregatu beharko da dagokion dokumentazioarekin (baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena).

Kontuan hartzea

- Erretiro partziala eskatzen duen langileak baja hartuz gero, eta honen iraupena ikasturte horretan egin beharko lukeen lanaldia baino luzeagoa bada, ezin izango da zerbitzuak aldi bakar batean metatzeko aukera eman.
- Errelebistak urte osoko norberaren eginkizunetarako 5 egun izango ditu gehienez, lotuta dagoen erretiratu partzialaren kotizazioari dakarkion kaltea dela medio.


Lizentziak, baimenak eta eszedentziak

Lizentziak eta eszedentziak	Art.	Nork	Iraunaldia	€
Amatasuna eta erditzea	20	FBCO	18 aste. Zehaztasunak amatasun taulan begiratu.	Bai
Adopzioa edo harrera	22	FBCO	Aurrekoaren antzekoa. Nazioartekoa bada, bidaiaren egiteko 2 hilabetera arteko baimena.	Bai
Edoskitzea	20	FBCO	Jaioberri bakoitzagatik egunero ordu bat. Zehaztasunak edoskitze taulan begiratu.	Bai
Gurasotasuna	21	FBCO	18 aste. Zehaztasunak aitatasun taulan begiratu.	Bai
Ezkontza / bikotetza	23	FBCO	20 egun natural, ezkontza eguna barne. 6 urte pasa beharko dira berriz ere lizentzia eskatzeko.	Bai
2. mailako senideen ezkontza	23	FBCO	Egun 1(+2 egun natural, 150 km-ra baino urrunago bada).	Bai
Senideen gaixotasun larria	24	FBCO	5 lanegun: bikotea edo seme-alaba. 2 lanegun: 2. mailara arteko senideak (+2 egun natural 150 km-ra baino urrunago bada). Elkarrekin biziz gero, maila urrunagokoak. Errepika daiteke 30 egun geroago, terminala salbu.	Bai
Senideen heriotza	24	FBCO	5 lanegun: bikotea edo seme-alaba. 3 lanegun: 2. mailara arteko senideak (+2 egun natural 150 km-ra baino urrunago bada). Elkarrekin biziz gero, maila urrunagokoak.	Bai
Nahitazeko betebeharrak	25	FBCO	Behar den denbora.	Bai
Etxebizitzaz aldatzea	26	FBCO	2 lanegun, erroldatu eta 15 egun naturaleko epean hartzeko.	Bai
Eszedentzia berezia	54	F	6 hilabete gutxienez eta urte bat gehienez. Gutxienez 2 urteko antzintasuna. Bi urte pasa beharko dira berriro eskatu ahal izateko.	Ez
Borondatezko eszedentzia	39	F	Urte bat gutxienez eta 5 urte gehienez (gutxienez urtebeteko antzintasuna). 4 urte pasa beharko dira hurrengo eskatu arte.	Ez
Seme-alaba zaintzeko eszedentzia	39	FBC	Nahi beste aldiz eten eta eskatu daiteke, umeak 3 urte bete arte.	Ez
Senidea zaintzeko eszedentzia	39	F	Urte bat gehienez. 2.mailara arteko senideak.	Ez

Baimenak	Art.	Nork	Iraunaldia	€
Adingabekoak, desgaituak edo 2. mailako senideak zaintzeko	29	FBCO	Herena edo erdiaren murrizketa.	Bai %
2. mailako senideak gaixotasun kroniko edo mugitzeko arazoekin	30	FBCO	50 ordu arteko baimena ikasturte bakoitzeko. Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran (zentruko zuzendaritzaren esku).	Bai
1. mailako senideen gaixotasun larria	(1)	FBCO	Herena edo erdiaren murrizketa (hilabete bat asko jota).	Bai
Ikasketak edota praktikak egitea	31	F	Luzatu ezin den ikasturte bat.	Ez
Azterketa ofizialetara aurkeztea	32	FBCO	Egun natural bat (+2 egun 150 km-tara bada).	Bai
Konsulta medikoa	33	FBCO	Behar den denbora. Erditzea prestatzeko astero 4 ordu.	Bai
Norberaren eginkizunak	36	FBCO	Gehienez 4 hilabete 2 urtero. Urte bateko antzintasuna. Ordezkoa izanez gero, kurtso horretan gutxienez 6 hilabete pilotuta edo ikasturte osoko kontratua edukitzea.	Ez
Lanaldiaren borondatezko murrizketa	53	FB	Herena edo erdiaren murrizketa (urtebeteko iraupena gutxienez). 3 urte pasatu behar dira berriro ere eskatu ahal izateko. Gutxienez bi urte lanean.	Bai %
Urte sabatikoa	56	F	4 urtez lanean eta urte bateko baimena. %84ko ordainsaria.	%84

F: Langile finkoak. B: Bakantedunak (LEP). C: COS. O: Langile ordezkoak. Art.: Lan hitzarmeneko artikulua zenbakia.
(1) Mahai Orokorreko akordioa.

Odol-ahaidetasunaren organigrama



Oharrak

1. Edoskitzerako etenaldia, bai jardun osoan bai jardun murriztu edo partzialen hartu ahal da.

Edoskitze metatua. Amatasun lizentzia, gehi metatutako edoskitzea bukatzean beste baimen mota bat eskatzeko asmoa badago, Delegaritzan abisatu behar da metatutako edoskitzearen eskaera horrekin batera. Horrela egiten ez bada, eta beranduago horrelako eskaera bat eginez gero, disfrutatutako edoskitze aldia egokitu beharko da, eta, beraz, disfrutatutako gehiegizko egunen ordainsariak itzuli beharko dira.

2. Norberaren eginkizunetarako baimena ordaindu gabekoa da, baina Gizarte Segurantzaren altan jarraitzen denez, ez dago aldaketarik kotizazioan. Itzultzean, hartutako egunen diruaz gain, baimenaren denboraldi horretan Hezkuntza Sailak Gizarte Segurantzaren langileagatik ordaindu duena ere **nominatik deskontatzen da**.

3. Adin txikiko seme-alabei edo beste senide batzuei kontsulta, tratamendu edo azterketa medikuetara joaten laguntzeko espezifikoki kontuan hartzen duen lizentziarik ez dago. Dena den, arrazoi horienagatik huts egiteko aukera dago. Horretarako, zuzendariari baimena eskatu beharko zaio, baita justifikazioak aurkeztu ere. Zuzendariak hartuko du erabakia.

4. Bateriaezintasunagatik eszedentzia: langile finkoentzat da. Baimen honek ez du suposatzen bere lanpostuaren erreserba, baina bai lanpostu batena.

Eszedentziaren arrazoia desagertu eta gero, hori gauzatu zuen zeregina edo zerbitzua bukatzen denetik 30 egun naturaleko epean langileak bere lanpostura berriro itzultzeko eskaera egin beharko du (hau da, "reingresoa" eskatu).

Epe horretan ez bada bueltatzen, behin betiko baja sorraraziko du. Nahiz eta "reingresoa" eskatu, langilea ez da lanean hasiko irailera arte, baina lanpostua aukeratuko du behin behineko langileek baino lehen.

Ordezkapenak sarritan egiten badira, langileak, ez du zertan eskatu behar "reingresoa". Sarritan gertatzen ez badira, eta langabezia eskatzeko asmoa baldin badauka, "reingreso"-aren eskaerako agirira aurkeztu beharko du.

Eskaera, bai eszedentziarena bai bueltatzearena, Lakuako Harreman Sindikaleko Sailera bideratuko da. Nahi beste aldiz eska daiteke eszedentzia mota hau, ez dago mugarik.


5. Ordezkoek kontratua eteteko aukera. Gutxienez, ikastetxe publikoetan 3 urteko antzintasuna duten langileek indarrean duten kontratua eteteko eta Hezkuntza Saileko irakasle lanpostu batera joateko aukera dute (zerrendetan mantenduz); eta aipatzekoa da, ikasturte horretan berriro ere hezitzaile bezala lan egiteko aukera galtzen dela. Langileak LEP arteko kontratua izanez gero, galduko luke. Kudeaketarako helbide elektronikoa:

hezk.sindi@euskadi.eus

Asuntua: TRAMITE URGENTE - PRESAZKO IZAPIDEA

Haurdunaldia, erditzeko unea, edoskitzea, baimena eta edoskitzea amaitu eta gero, ordezkoak, gurasotasun baimenak

Haurdunaldia



Amatasuna babesteko prozedura zabaltzea:

Haurdun dauden emakumezko langileek arrisku espezifikoak dute, ikasleekin kontaktu zuzena dutelako agente biologiko batzuei (Errubeola, Elgorria, Parotiditisa, Barizela-Zoster, Parvovirus B19 eta Cito-megalovirus) immuneak ez bazaizkie.

Hori dela eta, prebentzio-zerbitzuak "serologia" bat egingo die haurdun dauden langile guztiei, eta ezezkoa ateratzen bada, beren lanpostutik kenduko dituzte. Haurdunaldiaren egoeraren jakinarazpena borondatezkoa bada ere langilearentzat, neurri horiek martxan jartzeko beharrezkoa izango da enpresari haurdunaldiaren egoeraren berri ematea, ahalik eta lasterren.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Haurdunaldiaren edo edoskitze naturalaren berri ematea.
- Osasun Zerbitzu Publikoaren txosten medikoa (familia-medikuarena edo ginekologoarena), haurdunaldia edo edoskitze naturala egiaztatzen duena. Gutun-azal itxi batean entregatuko da, bertan idatzitako "KONFIDENTZIALA" hitzarekin.

Dokumentazioa honako helbide honetara bidaliko da, Lurralde-Ordezkaritzen bitartez (Hezkuntza Erregistroa edo Zuzenean):

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arduradunari
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritza
Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Erditzeko unea

18 asteko baimena kobratzeko eskubidea lortzeko aukerak.

Kontratupean egotea umea jaiotzen den egunean.


Kontratupean egonda, Aurrekoetan handiz (Gizarte Segurantzza) medikuaren bajan egon eta hau ez etetea umea jaiotzen den egunera arte.

Bajan egonda kontratua amaitzen bada Gizarte Segurantzza bajan jarraitzea eskatu behar da, eta horrela mantendu umea jaio arte.


Umea jaiotzen den egunean langabeziatik kobratzen egotea.

Mutuatik bajan bazaude, kontuz kontratua bukatu aurretik Gizarte Segurantzako medikuarekin hartu behar baita baja.


Edoskitzea



Baimena eta edoskitzea amaitu eta gero



Ordezkoak



Gurasotasun baimenak

Ama biologikoaren* jaiotzagatiko baimena; adopzioa, adopzio aurreko zaintza, edo harrera aldi baterako zein iraunkorragatiko baimena; eta ama biologikoa ez den gurasoaren seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatiko baimena.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute. 2 aste gehiago haur gehigarri bakoitzeko eta 2 aste gehiago umeak desgaitasunen bat izanez gero.

Baimen hauek instrasferibleak dira; ezin zaizkio beste gurasoari pasa.

	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa			Nola hartu behar dira asteak?
		2019/09/01tik	2020	2021	
Nahitaezko zatia	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste	Etenik gabe. Umea jaio eta jarraian.
Borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste	Etenik gabe edo zatika (salbuespenak daude).
Hobetutako zatia	2 aste	10 aste	6 aste	2 aste	Etenik gabe (salbuespen bat dago).

Nahitaezko zatia: haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurretiko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da, etenik gabe.

Borondatezko zatia:

Bi modutan:

- Etenik gabe edo zatika.

1. ETENIK GABE (aste guztiak jarraian):

→ Bi kasu hauetan derrigorrezkoa izango da etenik gabe hartzea:

- Bi gurasoetako batek lanik egiten ez badu.
- Adopzio, zaintza edo harreran hartutako haurrak 12 hilabete baino gehiago baditu.

2. ZATIKA.

- Ama biologikoak:** nahitaezko zatia amaitu eta gero, nahi duenean.
 - Aste osotan banatuta.
 - Haurrak 12 hilabete bete arte.
 - Jakinarazpena 15 lanegun lehenago (errebokaezina).

- E-maila:

Araba: arabaei@euskadi.eus

Bizkaia: bizkaiaei@euskadi.eus

Gipuzkoa: eigipuzkoa@euskadi.eus

- Ordainketa borondatezko zatia agortutakoan (nometako sistema eguneratu arte).

• Beste gurasoak:

→ Ama biologikoaren edo beste adoptatzaile/zaintzailearen edo harrerakoa ez den gurasoaren nahitaezko 6 asteak amaitu eta gero, edo

→ Ama biologikoaren edo beste adoptatzaile/zaintzailearen edo harrerakoa ez den gurasoaren baimena (aste guztiak, borondatezkoak + hobetutakoari dagozkionak) amaitu eta gero.

→ Ama biologikoak edo adoptatzaile/zaintzaile/harrerako gurasoak edoskitze metatua, hau bukatu eta gero hasiko da gainerako borondatezko zatia dagokion baimen-asteen kontaketa.


Hobetutako zatia:

Borondatezko zatia amaitu eta jarraian hartu behar da, etenik gabe.

Jarraian hartzeko derrigortasun horretatik **salbuesita** daude kontratu amaiera jakin bat dutenak. Horiek hurrengo izendapenean edo kontratua hasitakoan, berehala jarraituko dute baimenarekin, berau agortu arte (haurrak, 12 hilabete bete aurretik).

STEILASen legeak baliatutako Ama Biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Lan istripuak, nola jokatu



Ikastetxeko Zuzendaritzak

beti bete behar du jakinarazpena eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzura zein Nomina sailera bidali

Laneko istripua

Langilea lanean ari dela edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

"IN ITINERE" (laneko istripuen barruan)

Istriputzat jotzen da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Gorabehera (intzidentzia)

Edozein jardueretan aritzean eman daitekeen edozein egoera; nahiz eta momentuan lesiorik ez eragin, baina lesioak eragin ditzakeena (Segurtasun laguntzaileari komunikatu, erregistratzea garrantzitsua baita).

KONTAKTU ETA INFORMAZIO BALIOGARRIA (K)

Zuzenean zerbitzua

Telefonia 📞 012
Astelehenetik ostiralera 🕒 9:00 – 19:30
🕒 9:00 – 14:30 (abuztuan)
Zuzenean zerbitzuarekin lankidetzaz hitzarmena duten
udaletxeak ikusteko: “Zuzenean aurrez aurreko arreta”

Pertsonal ez irakaslea

Araba 📞 945 017 218 / 259
Bizkaia 📞 944 031 146 / 137
Gipuzkoa 📞 943 022 874 / 912

Nominak

Araba 📞 945 017 238 / 239
Bizkaia 📞 944 031 138 / 139
Gipuzkoa 📞 943 022 878 / 876

Zerbitzu medikua

Araba 📞 945 017 214
Bizkaia 📞 944 031 196
Gipuzkoa 📞 943 023 173

Prest Gara

prest_gara@hezkuntza.net

Irale

Araba 📞 945 017 251 / 246
Bizkaia 📞 944 031 099 / 101
Gipuzkoa 📞 943 022 873


Mutualia

📞 902 540 250



Sektoreko aldarrikapenak

- Adinagatiko arreta zuzenaren murrizketa
- Ordezkoen araudia sortzea
- Gaixotasun profesionalen aitortza
- Maisu-maistren kidegoan eta Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan puntuatzea
- EPEaren garapena
- Lan hitzarmen berria
- Ordezkoen udaren puntuaketa/kobrantza
- Sexenioen kobrantza
- Funtzioen berrikuspena



www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu